

# SEME-ALABARIK BADUZU?

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**ERICA:** (*Lagunari*) Oso urduri nengonan. Izan ere, ez zunan lan-elkarrizketa bat, bazunan... 'solas' bat. Eta hori lan-elkarrizketa bat baino askoz zailagoa dun. Helburua nirekin hitz egitea eta nolakoa nindunan ikustea zunan, nola moldatzen nindunan. Elkarrizketa gainditu ninan, no. Hautagai perfektua nindunan. Ni eta beste hiru neska. Baina ni nengonan posiziorik hoberenean. Lana lortzeko hamar minutura nengonan. Ni neu izan behar ninan, naturaltasunez hitz egin eta irribarre asko egin. Hori bai: elkarrizketa neuk hasi behar ninan. Arraioa, ezezagunekin hitz egiten hastea gustatzen zaidananarekin. Eta kasu horietan beti funtzionatzen dinan esaten ditenan amarru batez gogoratu nindunan, oso ondo zagon izotzaldia urtzeko: hau galdetzea dun: "Seme-alabarik baduzu? Zer adin duzu?" Itxuraz, inoiz ez din huts egiten: besteak hitz egiten jartzen dun, lerdea erortzen zaion bere niniak zein onak ditunan kontatuz, hiri gustatzen zain kontatzen dinana... eta dena oso atsegina egiten dun eta denbora asko pasatzen dun. Beraz, gizonari galdetzen zionat: "Seme-alabarik baduzu?" Esaten zidan: "Ez". Eta nik esaten zionat: "Zer egiten dute?" (*Etena*) Arraioa. (*Etena*) Ez ninan ezta entzun ere. Mutu gelditu nindunan. Ez ninan jakin zer gehiago esan. Hitz egiten ez ninanez, gizonak azkenean esan zidan: "Eta zuk? Seme-alabarik baduzu?" Eta nik: "Seme-alabarik?" "Eeeeeeeez" "Niretzat garrantzitsuena lana dun". (*Lagunari samurtasunez erregutzen*) Mesedez, gelditu haiteke gaur beraiekin... mesedez? Kopa bat hartzea izango dun... hamar minutu...

**OHARRAK:** *Komeni da argi izatea ERICAk bere lagunari deitu diola gauean seme-alabak zaintzeko eskatzeko, eta ez laneko elkarrizketa nola joan zaion kontatzeko. Laneko elkarrizketa nola joan zaion kontatzen badio, lagunak uler dezan zergatik behar duen hain etsi-etsian seme-alabekin gau horretan geratzea da.*

Ele txera  
Hondolude zabaldiaz



# SEME-ALABARIK BADUZU?

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Horregatik, gertaeren kontakizuna ez da azalpen lasaia, entretengarria, mantsoa izango, kontrakoa baizik: narrazio zuzena, azkarra, urduria izango da. Hala ere, **ERICA**k bere diskurtsoaren antzerki-zatia ustiatuko du, komeni baitzaio adieraztea elkarrizketa ohiz kanpoko gertaera ikusgarria izan dela. Eta kontakizun bat antzezteko modu hoberik ez dago estilo zuzena erabiliz baino (Berak esan zidan, Nik esan nion...). Horrek aukera ematen du gertatutakoa errealismo osoarekin bizitzeko eta, bide batez, pixka bat puzteko.

Bakarrizketa atsegina da, komikoa. Egokia da aktorearen alderdi natural eta dibertigarria erakusteko.

Ele txera  
Mundua ez zabalduz

